

Z·M

MUSEO
ZUMALAKARREGI
MUSEOA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa




IRAULTZA GARAIA

Frantziako
Iraultzak
1789-1799

errege bati lepoa moztu baino
gehiago egin zuen. Liberalismoa
politika, ekonomia, gizartea,
bizimodua ulertzeko era berri
bat zen. Harrez geroztik Europa
osoan zabaldu ziren gerretan
mundu zaharra (**Aintzin
Erregimena / mundu
berria (sistema
liberala)**)ari ziren jokoan.


Muzeoko planoak



Behe solairua:

- 1 Zumalakarregi eta bere garaia
Zumalakarregi anaiak
- 2 Zumalakarregiren familia
- 3 "Explora ezazu XIX. mendea" tailerra

1.solairua:



- 4 Garaikideak
- 5 "Bi mundu aurrez aurre" ikusentzunezkoa
- 6 Lehenengo Karlistaldiaren aurrekariak
Foruak
Arazo dinastikoa
- 7 Aurkariak
Karlismak
Liberalak
Gerraren gizartiatzea
- 8 Gerraren gakoak
Karlismen laguntza
Liberalen laguntza
Gerra burruka armatua baina gehiago da
Hiriburuak
Donostiako panorama
Gerraren nekea
Bakea
Armamentoa

- 9 Gerra arteko garaia
Bigarren Karlistaldia
Gerraren eztanda
Karlismen estatua
Propaganda
Azken borrokak
Karlismen porrota

- 10 Tomas Zumalakarregi. Mitoa
- 11 "XIX. mendeko historia militarra Euskal Herrian" multimedia

Aurkibidea

**Bi mundu
aurrez aurre** Or.
.4

**Gerra, gerra eta
gerra** Or.
.5

Zumalakarregitarak Or.
.6
Zumalakarregi familia

**Lehen Karlistaldia
(1833-1839)** Or.
.8

Arazo dinastikoa, gatazka politikoa bihurtu
Foruak
Armada sailak
Atzeritarren laguntza
"Bergarako ituna"

**Gerra arteko
garaia** Or.
.17
(1839-1872)

Burdinolatik labe garaietara
1841: aduanak, ebrotik bidasoara
Industrializazioa
Trenbidea
Hirien zabalkuntzak

**Bigarren
Karlistaldia** Or.
.19
(1872-1876)



Bitxikeriak Or.
.21

Prentsa
XIX. mendeko protagonistak

Erregimen aldaketa Or.
.28
(1788-1878)


Industria Iraultza Or.
.29

Garraio-iraultza
Ormaiztegiako trenzubia




BI MUNDU aurrez aurre

Aintzin Erregimena




Ekonomia



Liberalismoa

Aipa itzazu, ezaugarri banatan, Aintzin Erregimenaren eta Liberalismoaren arteko desberdintasun nagusiak.


Gizartea



Politika



Erljioa




GERRA, gerra eta gerra...

Arma hartzea ez zen gauza berria euskaldunentzat. 40 urte lehenago hasitako bi erregimenen arteko borroka modu askotan ezagutarazi zen. Euskal Herria muga herria denez, gerrek nabarmenago kaltetu zuten: lehen eta azken borrokek hemen ematen ziren. Horretaz gain, soldaduen pasatze hutsak herrien odolostutze ekonomikoa zekarren. Bukatzeko, **gerra zibila**, okerragoa.



T. ZUMALAKARREGI



47
urte
R.I.P.


Tomas Zumalakarregik bere bizitza gerra artean igaro zuen. Haurtzaroan gerra ezagutu, gaztaroan gerrilari egin eta lanbide militarra hautatu, eta azkenean beste gerra batean hil zen



Zumalakarregi ANAIAK

Tomas

Migel



Zer ziren lanbidez?

Horretarako ikasi zuten?

Zertan nabarmendu ziren?

Zein liburu dagokie bitrinan?

Hona etorri baino lehen bazenuen haien berri?


Zein iruditzen zaizu interesgarri-
go eta zergatik?

TOMAS

hamalau anai-arreben azkenurrekoa zen. Aita bezala eskribau* izateko erabaki zuen familiak. Seguruenik gurasoenaren antzeko bizimodu lasaia eramango zukeen, gerrak patua aldatu izan ez balio. Gerlaria general karlista ospetsua bihurtu zen.

MIGEL

anaia zaharrena, gehien nabarmendutako senidea. Liberal moderatua izaki, Cadiz-eko Gorteetan partaide eta 1812ko Konstituzioaren egiletariko bat. Donostiako alkate, senadore eta Grazia eta Justizia ministro karguak bete zituen.



* Eskribaua: Administrazioako antzinako enplegatua, oraingo idazkariaren egitekoak betetzen zituena.


Frantzisko
Antonio
Zumalakarregi
(1741-

Zumalakarregi


2. aldiz ezkondua

Maria Ana Imaz
Altolagirre

ZUMALAKARREGI FAMILIA



Zumalakarregiren familia Euskal Herrian hain zabaldua zegoen **kaparedun*** estamentuko familia bat zen. Alabei ezkontzeko dote ona ematen zitzairen, eta semeei, berriz, ikasketak ordaindu, gero Letretan, Elizan edo armadan zerbitza zezaten.



* Kapare: Foruen arauera, Bizkaia eta Gipuzkoako biztanle guztiak kapareak ziren, hots, libreak, soldadutza eta zergetatik askeak eta eskubide politikoak jabeak.

LEHEN KARLISTALDIA

1833-1839

ARAZO
DINASTIKOA,
GATAZKA
POLITIKOA
BIHURTU

Ni izango
naiz
erregea



Carlos V
"erregegaia"

Nere alaba
izango da
erregina, ezta
Isabel?



**Isabel
II**



Fernando
VII

"Isabel II.a haur
inuzentek"

1833an, errege Fernando VII.a hil zenean, denek zekiten gerra lehertuko zela. Haren anaia Karlosek ez zuen ontzat hartu emakumeak erreinatzea ahalbidetzen zuen "Pragmatica Sancion" deituriko legea indarrean jarri izana, eta hiru urteko iloba Isabelen aurka jeiki zen, Lehen Karlistaldiari izena eta hasiera emanez


3 urte
besterik ez zituen

Gaur egun badago Euskal Herrian emakumea baztertzen duen ohitura edo legerik? Zer deritzozu horri?

Bai

Ez

Borboien genealogia




Borboien karikatura Nor da nor?

UNA FAMILIA MODELO LA FLACA. 35. zenbakia,
Bartzelona, 1870-II-20. Egilea: D.P.



Zortzi urteko epean (1868 eta 1876 artean) bakarririk Espainian erregina bat eta bi errege izan ziren eta tronurako beste hiru hautagai. Karrikatura honetan Borboiak beraien artean borrokatzen ari dira **tronua** rengatik. Atzekaldean, ezkerreko koadroan Fernando VII.a bere aita, Carlos IV.aren borrokan, 1807-1814 urteetan Napoleonen babesean ibili ziren moduan. Eskubikoan Don Karlos (V) eta berriro bere anaia Fernando VII.a Karlistaldien sorrera izango zen ika-mikan. Erdian Isabel II.a, tronua

galdu berriaren inguruan, Montpensierko dukea, bere koinatua, eta Don Carlos (VII), bere iloba, erregegaiak tronuarengatik oldartuta. Bitartean eskubian Alfonsok (XII), azkenean tronua eskuratuko zuenak, Blanca haurrarekin, bere lehengusurarekin, Don Carlosen alabarekin alegia, borrokatzen ari da.



Francisco de Asis, Isabel II.aren senarra, errege konsorte ohia naiz. Bibotea daramat eta bi besoak altxatuak ditut. **1**




Carlos IV.a naiz Fernando VII. aren aita. Eskubiko hanka altxatua daukat. **2**



Enrique de Borbon, Sevillano dukea, Francisco de Asisaren anaia, Isabel II.aren lehengusua eta koinatua naiz. Eskubiko eskuan egunkari bat eusten ari naiz. **3**




Montpensier-eko Dukea, Isabel II.aren koinatua eta erregegaia naiz. Bibotea daramat eta ondo orraztu gabe nago. **4**



Carlos V.a naiz Fernando VII.aren anaia, txapel txuria daramat **6**



Fernando VII., Isabel II.aren semea eta Isabel II.aren aita naiz. Ezkerreko besoa altxatua daukat. **7**



Bianca de Borbón, Carlos VII.aren lehen alaba naiz. Txapel gorria daramat. **9**




Fernando VII. naiz Isabel II.aren aita. Isabel II.a naiz tronua galdu berri dudan erregina. Soineko marraduna daramat. **8**



Alfonso XII, Isabel II.aren semea naiz. Hurrengo erregea (5 urte beranduago) izango naiz. Eskuan arma daramat. **10**



Don Carlos VII., erregegai karlista naiz, txapel txuria eta ezpata ihes egin didate **12**



Fernando VII. naiz Isabel II.aren aita. **11**






Isabel Infanta, Isabel II.aren lehen alaba naiz. Soineko urdina daramat. **13**

FORUAK*

Euskaldunak euskaldunen aurka armak hartu zituztenean, gutxienekoa zen errege edo erregina baten arteko hautua. Liberalismoaren askatasun teorikoak euskal biztanle gehienek errealitateetik kanpo zeuden. Foruek, berriz, **abantaila** praktikoak ekartzen zizkieten herritar xeheei.

Seinala itzazu mapa hauetan aduanak*
1833an non zeuden kokatuak eta 1841ean
nora aldatu zituzten.



* Foruak: Herri edo herrialde bateko usadio eta ohiturak idatzita batzen zituen araudi-multzoa, hein batean, herrialde horretako zuzenbide edo lege-bilduma osatzen duena.

* Aduana: Administrazioaren adarra, mugetan merkantzien sartu-irtena fiskalizatzeaz eta hauengatik ordaindu beharreko eskubideak biltzeaz arduratzen dena


Euskal lurraldeek Foruak, Erdi Aroaz geroztik erregeak emandako pribilegioak, zituzten. Lege bilduma hauek Konstituzio liberaletan nekez txertatzen ziren, salbuespen juridiko eta fiskalengandik batik bat. Frantziako Iraultzak, Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoako Foruak bertan behera utzi zituen 1789an. Hegoaldean prozesua luzeagoa eta konplikatuagoa izan zen.

Kokatu itzazu ondorengo baieztapenak dagokion zutabearen:

- Jauntxoak instituzioetatik kanpo
- Zerga salbuespena
- Soldadu joan beharrik ez
- Europako kompetenziaren aurrean babesik eza
- Adunak Ebron kokatuak
- Europa eta Ameriketako produktuen inportazioa
- Janzkera hobea
- Espaniar merkatuan integrazio eza
- Tabakoa merkeagoa

Foruen abantailak herri xehearentzat:

Foruen desabantailak liberalentzat:



El Concierto Económico se enfrenta a un examen decisivo en Luxemburgo

2008

LA ABOGADA GENERAL PRESENTA MAÑANA SUS CONCLUSIONES

Servirán al Tribunal de la UE para decidir si Euskadi puede fijar tipos impositivos distintos

SILVIA MARTÍNEZ

BRUSELAS. La abogada general del Tribunal de Justicia de Luxemburgo, la alemana Juliane Kokott, presentará mañana jueves sus conclusiones sobre el encargo del Concierto Económico vasco en la legislación comunitaria y sobre la posibilidad de que las haciendas forales de Gipuzkoa, Bizkaia y Álava puedan aplicar a las empresas con sede en sus respectivos territorios tipos impositivos más bajos que los vigentes en el Estado español. Su informe, que servirá de base para que los jueces europeos tomen una decisión y que será determinante para el futuro de la fiscalidad vasca, llega apenas dos meses después de la vista oral celebrada el pasado 28 de febrero en Luxemburgo, en la que se enfrentaron las instituciones vascas y la Comisión Europea.

El caso se remonta a la media docena de denuncias planteadas en 2006 por las comunidades autónomas de La Rioja y Castilla y León contra las medidas fiscales vascas y, concretamente, a las preguntas prejudiciales planteadas por el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco un mes después de la publicación de la sentencia de las Islas Azores, en septiembre de 2006, que establece los criterios para que una entidad "independiente" como puede ser una región o una provincia puedan establecer tipos impositivos reducidos o una fiscalidad distinta en una parte del territorio de un Estado miembro. Un caso que las instituciones vascas entienden como un precedente para que



Los tres diputados generales vascos, en Luxemburgo.

Euskadi pueda seguir aplicando un impuesto de sociedad más bajo que en el Estado español sin que sea entendido como una ayuda de Estado ilegal.

AYUDAS DE ESTADO Además, a raíz de diversas decisiones contradictorias del Tribunal Supremo, el TJPE quiere que la corte europea determine también si las medidas fiscales adoptadas por las haciendas forales en 2005 en relación con el impuesto de sociedades constituyen ayudas de Estado que deben ser

comunicadas a la Comisión Europea o no. Estas medidas fijan un tipo impositivo inferior al aplicado en el Estado español y unas deducciones tributarías no contempladas en la estatal.

Concretamente, el órgano jurisdiccional vasco pretende que, de una vez por todas y para terminar con la sucesión de denuncias interpuestas en Bruselas contra las normas fiscales vascas, el Tribunal europeo se pronuncie sobre si medidas fiscales de este tipo, que afectan exclusivamente a un territorio en el que las

tres haciendas forales son competentes, deben ser consideradas "selectivas" y por tanto comunicadas previamente a la Dirección General de la Competencia de la UE o no.

Las autoridades vascas esperan ahora que la abogada general primero y los jueces europeos después entiendan el caso de las Islas Azores como un precedente y analicen la competencia de las haciendas forales vascas de establecer un impuesto de sociedades distinto al del Estado español. Una postura que durante la vista oral celebrada a finales de febrero pasado también fue apoyada por los representantes del Gobierno español, de Reino Unido e Italia en contra de los servicios jurídicos de la Comisión Europea, del Gobierno de La Rioja y del de Castilla y León que acusan al País Vasco de recibir subvenciones del Estado a través del Cupo para mitigar así las rebajas fiscales.


En la misma línea fuentes diplomáticas comunitarias insistieron ayer en que si el procedimiento de las Islas Azores "no se resuelve" en el País Vasco y Navarra no se podrá aplicar a nadie en la Unión Europea". Asimismo, las mismas fuentes advirtieron también de que si el dictamen fuera favorable a la Comisión Europea y las comunidades de La Rioja y Castilla y León se genera una situación "muy complicada"

porque los servicios de la Competencia comunitaria los tendrían que abrir investigaciones cada vez que las diputaciones y el Gobierno Vasco aprobaran una norma fiscal distinta a la del Estado español.


Cabe recordar que las conclusiones del abogado general, una especie de fiscal del tribunal europeo, no tienen porque ser seguidas al pie de la letra por los jueces del Tribunal. Así ocurrió en los casos de las Islas Azores y de los casos de Navarra.

El TJPE quiere que la corte europea determine también si las medidas fiscales adoptadas por las haciendas forales en 2005 en relación con el impuesto de sociedades constituyen ayudas de Estado que deben ser comunicadas a la Comisión Europea o no. Estas medidas fijan un tipo impositivo inferior al aplicado en el Estado español y unas deducciones tributarías no contempladas en la estatal. Concretamente, el órgano jurisdiccional vasco pretende que, de una vez por todas y para terminar con la sucesión de denuncias interpuestas en Bruselas contra las normas fiscales vascas, el Tribunal europeo se pronuncie sobre si medidas fiscales de este tipo, que afectan exclusivamente a un territorio en el que las

ARMADA SAILAK

+  : <http://www.zumalakarregimuseoa.net/ekintzak-eta-zerbitzuak/ikerketa-eta-dokumentazioa/xix.mendeko-historia-euskal-herrian>

Soldadu **liberalak:**
Armada liberala garai hartako eredu arabera hornitzen zen. Uniformeak Frantziako modeloari jarraitzen zioten. 100.000 soldaduz osatutako ejerzitua izatera iritsi ziren, antolakuntza eskasaren ondorioz hornidurak eta soldadak garai jasotzen ez bazituzten ere.



Soldadu **karlistak:**
Gerra hasieran gaizki armatutako gerrilari talde batzu besterik ez ziren. Tomas Zumalakarregiren meriturik handiena mila baserritar hartu eta gerrilen taktikak praktikan jarri ezarritako erregularrari aurre egitea izan zen



Zenbat gizon inguruk osatzen zuten infanteria liberala?



Eta infanteria karlista?




Zergaitik dago soldadu hori biluzik?

Zeintzuk ziren txapelgorriak?



ATZERRITARREN LAGUNTZA



Gerra hasi orduko, harrapatutako etsaia **fusilatu** egiten zen. Lord Elliot ingelesak bi aldeek presoak elkar trukatzeko hitzarmena sinatzea lortu zuen. Halaber, britaniarren arartekotza inportantea izan zen Bergarara eraman zuen bakebidean. Gaur egun bezala ere, asmo humanitarioek interes ekonomiko eta politikoak ezkututzen zituzten.

Nolako laguntza jaso zuten liberalek?

Eta Karlistek?

Gaur egun atzerritarrek parte hartzen dute gerretan?


Non eta zertan?





"BERGARAKO ITUNA"

Muñagorrik **"Bakea eta Foruak"** proklama aldarrikatu arren, bere proposamenak ez zuen arrakastarik izan, baina Bergarako ituna, 1839an, urte luzeen ondoren, gerrari amaiera eman zion agiria bide beretik etorri zen: foruen errespetua eta ofizial karlisten kargu edo pentsioen balioztapena, bakearen truke. Besarkadak bi aldeen adiskidetzeari sinbolizatzen du.



Zer dio Bergarako Itunak Foruei buruz?

*Muñagorrik diona
Legea autsi ezker
bere proklamian:
gerrak ondatzen gaitu
bostgarren urtian;
igaz jarri zan Karlos
Madrilgo bidian,
bultza zuten atzera,
gerra bere oñian.*

Eta arazo dinastikoari buruz?

Benito Lertxundik abesten dituen
Muñagorriren kantak

Gerra ondoren liberal gehienek foruen alde zeuden. Zergaitik?

Iraultza politikoak ez dira gauzatzen iraultza ekonomiko, sozial eta ideologiko sakonik gabe. Burdin fundizioak, paperolak, trenak, turismoa, emigrazioa, hirien zabaltzea, elizaren gainbehera ekonomiko eta ideologikoa....aldaketa guztiok ez ziren tentsiorik gabe ematen ari, 2. Karlistadak adierazi zuenez.

GERRA ARTEKO GARAIA (1839-1872)

BURDINOLATIK LABE GARAIETARA

Euskal industrializazioaren ezaugarrietako bat burdingintzaren nagusitasuna izan zen. XIX. mende erdialdean, euskal burdinolek ez zituzten Europan garatutako teknika berriak bereganatu eta desagertu egin ziren. Burdingintza tradizionala bukatu arren, **industrializazioa** piztuko da, labe garaiei esker. 1841ean lehen labe garaia sortu zen Bilbon, Boluetako Santa Ana.

Nola dago egina?

Forjaz

Fundizioz

Burdinaz bestelako materialik badu?

Zer du idatzia?

Zertarako erabiltzen zen?



GOLDE MUTURRA

Nola dago egina?

Forjaz

Fundizioz

Zergatik ez da golde osoa burdinez egin?


Zertarako erabiltzen zuten goldea?

Oraingo goldeak hau bezalakoak al dira?

1841: ADUANAK, EBROTIK BIDASOARA

Lehenengo Karlistaldiaren ondoren, Foru sistema aldatzen doa. Aduanen leku aldatzea izan zen foru erregimenaren aldaketa nabarmenena.

INDUSTRIALIZAZIOA




Industrializazioak lehen pausuak emango ditu, papergintzan esaterako, Tolosa inguruko paper olek Espainiako merkatuen % 80a bereganatuko dute.

FORUZALE-TASUNA

Politika mailan foruzaletasunaren berrindartze prozesua emango da. Iparragirre eta bere

“Gernikako Arbola” izango dira foruzaletasunak herri mailan lortutako arrakastaren ezaugarri.



Iparragirre

TRENBIDEA

Komunikabideen hedakuntzan trenbidea dugu berrikuntza nagusia. Grabatuan, Ormaiztegiako trenzubia 1864ean inaguratua.



HIRIEN ZABALKUNTZAK

Donostiako harresien suntsiketa 1863an hirien zabaltzeko beharren lekuko da.



Lehenengo Karlistaldian irekitako zauriak ez ziren ongi sendatu eta **1872-1876** urteetan gertatu zen bigarrena.

BIGARREN KARLISTALDIA 1872-1876

Zeintzuk izan ziren gerra piztearen arrazoi nagusienak?

Gerra hau zertan bereizten zen aurrekotik?

Non gertatu zen karlisten lehen porrota?

Nor izan zen gerra honetako pertsonairik eztabaidatsuenak? Zergaitik?

Karlistek ia Estatu bat antolatzen saiatu ziren. Zein arlo garatu zituzten?

Ze bataila bihurtu zen karlisten sinboloa? Zergaitik?



1.go G.K.
Aurrekarga




Arma


2.go G.K.
Atzekarga




Lehen Karlistaldian erregegaia **Carlos V**. izan bazen, Bigarrean, Carlos VII. izan zen. Carlos VII.ak ere euskal nekazalgoaren gehiengoaren laguntza jaso zuen, ondorengo bertso hauek erakusten duten bezala.



Lehen Karlistaldian gertatu bezala, Bigarrean ere hiriburuak zeinen esku zeuden? Zein hiriburu setiatu zuten?



Zeinek galdu zuten gerra?



Zein izan zen ondorio nagusia?

Biba Karlos septimo eta Margarita, laister ikusiko deuetronuan jarrita.

Txapela zuri eta borlia berdia, zaldi gañian dator Don Karlos guria

Borondate guztiaz artu nuben arma, negarrez utzirikan aita eta ama

Karlosek bidali du Frantzik ordena txanponian saltzeko beltzik aundiena




BITXIKERIAK

PRENTSA

Gerra borroka armatua baino gehiago da. Prentsa alde bakoitzeko **propaganda** gune bihurtuko da, egundaino areagotzen joan den fenomenoaren bidea irekiz. Bestalde, Europako prentsak atentzio handiz jarraitu zuten Bigarren Karlistaldia.

Ondorengo bi prentsa adibide hauetatik, bata Lehen Karlistaldikoa eta bestea bigarrenekoa, zer nabarmenduko zenuke?





Aldizkari satirikoak:

Asma ezazu zure aldizkari satirikoaren izena

1870etik aurrera, aurrerapen teknikoek batetik eta egoera politiko berriak eskaintako aukerak, bestetik, aldizkari satirikoen ugaritasuna ekarri zuen. Aldizkariaren izenburuek oso ondo adierazten dituzte beraien asmoak eta estiloa.

Fray Gerundio. Madrid
 Arlequín. Madrid
 El Burro. Madrid
 El Pájaro Verde. Barcelona
 El Pájaro Azul. Barcelona
 El Cascabel. Madrid
 El Tiburón. Barcelona
 Gil Blas. Madrid
 La Víbora. Barcelona
 Aventuras de Pichichi. Madrid
 La Campana de Gracia. Barcelona
 Jeremias. Madrid
 El Trueno. Madrid
 Don Quijote. Madrid
 La Flaca. Barcelona
 La Gorda. Madrid

La Bomba. Barcelona
 El Cohete. Madrid
 Robinson. Barcelona
 La Porra. Barcelona
 La Calavera. Barcelona
 La Carcajada. Madrid, Barcelona
 El Loro. Barcelona
 Chorizos y Polacos. Madrid
 La Mosca. Barcelona
 El Rompe-Cabezas. Madrid
 La Marsellesa. Barcelona
 El Gallo. Barcelona
 El Motín. Madrid
 El Tupé. Barcelona
 La Avispa. Madrid
 El Busilis. Barcelona

El Alacrán. Valladolid
 El Caimán. Madrid
 La Caricatura. Madrid
 El Charlatán. Barcelona
 Letras y Cuernos. Madrid
 El Caballero de Gracia. Madrid
 La Semana en San Sebastián.
 El Coco. Madrid
 La Esquilla de la Torratxa. Barcelona
 El Danzarín. Vitoria
 La Cigala. Barcelona
 El Matute. Madrid
 La Retaguardia. Madrid
 La Jota. Logroño.
 El Último Mono. Madrid

Karikatura liberala

La Madeja política, 22. zenbakia Bartzelona, 1874-V-2

Nahiz eta errepublika

Paviaren kolpearen ondoren gainbehera zectorren, oraindik Espainiaren errepresentazioa emazte honen figurarekin betetzen zen. Eskuan Gernikako Arbola mozten ari den aizkora dararama.

Arbolaren enborra

karlismoaren ikurra osatzen du:

DIOS
PATRIA
REY

Arbolaren adarrak

hiru probintziak dira:

ARABA
GIPUZKOA
BIZKAIA



Arbolaren **fruituak** karlistak eta apaizak dira, azken hauek armatuak beti. Karrikaturen usadioak jarraituz, karlistak batzuetan perretxiko modura azaltzen zaizkigu, besteetan arratoi lez, baina beti txapela buruan

Errepublikarren asmoak betetzeko Concha jenerala

zerra bihurtua. Manuel Gutierrez de la Concha zen espainiar armadaren buru Iparraldeko probintzietan eta errepublikarren garaipenerako esperantza. Handik bi hilabete eskasera Lizarra inguruan aurkitu zuen heriotza.

botilak

Petrolio Vicente Manterolaren "Don Carlos o el petroleo" foiletora du gogoan, karlisten euskarri ideologikoa, non elizen erreketen irudia mamutzat erabiltzen den legea eta ordena aldarrikatzeko. Kasu honetan Don Carlos foruengandik ordezkutzen da, karlisten helburuen aipamena osatuz.

Gernikako Arbolaren erroak

sendoak dira:
ABSOLUTISMOA
INTOLERANTZIA
FANATISMOA


Karlisten gozogintza baldarragoa da, grazia gutxiagokoa, marrazkian nahiz testuaren aldetik. Errepublikarrak, oro har, gatz eta piper gehiagokoak dira, dibertigarriagoak, baina ez hala ere ankerkeria gutxiagokoak. Karlistentzat errepublikarrak txerriak badira, hauentzat karlistak bildotsak, txakurrak, astoak, arratoiak, hidrak, satorrak, tximinioak, txoritzarrak... dira.



Ondorengo karikaturan **bildots** karlistei zuzentzen zaiena Vicente Manterola apaiza eta diputatua da. "Don Carlos o el petróleo" foileto famatuaren egilea eta karlisten ideologo nagusienetakoa.



Zer irakur daiteke banderolan?
Ba al dago museoan beste
nonbait erreferentziarik?



ALELUIAK

El maestro de escuela
EL MOTIN.
 AÑO IX. N.º 11 (17-III-89). Madrid.
 Hemeroteca Municipal de Madrid

Argitalpen asko zegoenez, formatuak ere ugariak ziren: lamina bakar bat zuri-beltzean, edo koloretako ale asko luxuz koadernatuta, baita ondorengo formatu handiko aleluiak, kale eta plazatan kontatu eta kantatzeko. Aleluiak gai desberdinak jorratzen zituzten, ondorengoa maisuei buruzkoa da.




Juan era un hombre honrado, gordo, lucio y colorado



Pero le dió la manía de estudiar pedagogía



Y diez arrobas cabales pesaba entonces Juan Bales



Obtuvo escuela, y en breve solo llegó a pesar nueve




A todas las horas el cura le quemaba la figura



Si algún bruto no aprendía, la madre le escarnecía



O el padre de algún inculto quería buscarle el bulto



Su sueldo pedía en balde al gobierno y al alcalde



Y como nunca cobraba, el hambre le devoraba



Al dormir, sus pesadillas eran panes y tortillas



Se iba al sol frecuentemente por tomar algo caliente



La libertad de enseñanza practicaba de esta traza



Se desmayó cierto día frente a una pastelería



Contemplaba su alacena más limpia que una patena




Como no daba dinero le echó a la calle el casero



Y el hombre salió del paso habitando a campo raso



Quiere atraer, ivano intento! las aves con el aliento



Tan flacucho ya se hallaba que ni sombra proyectaba



Cuando el viento oír se deja tiene que subir a una reja



Una día de hambres crueles se engulló cuatro carteles




Y de allí a pocos momentos le dieron los sacramentos



Murió, y a su cuerpo enjuto sirvió de caja un canuto



Sin clérigos y si canto lleváronle al camposanto




Y España que tal consiente, mantiene gorda a esta gente.

Ezagunak

Zertan nabarmendu ziren pertsonai hauek?

XIX. MENDEKO PROTAGONISTAK



Eta ez hain ezagunak...

+ **i** : <http://www.zumalakarregimuseoa.net/ekintzak-eta-zerbitzuak/ikerketa-eta-dokumentazioa/xix.mendeko-pertsonaia-xumeak>



Migel Joakin Eleizegi

(1818-1861)

Altzoko erraldoia 2,42 metrotako altuera eta 203 kilo zituen. 64 zentimetroko aulkia, 33 zmko eskularruak eta 42 zmko abarkak, zenbakian 63 erabiltzen zuen



Juan Crisostomo de Arriaga

(1806-1826)

Hamaika urte zituela konposatu zuen bere lehen lana "Nada y mucho" izeneko oktetoa eta hamalau urte beren lehen opera Bilbon arrakasta handiz estreinatu zuen.



"El moro vizcaino"

(1827-1876)

Merkatari, erromes, ipuin kontalari eta eskale bezala ibili zen Marokon. Lanbide hauei esker, Fez-eko mezkitak eta Ipar Afrikako eguneroko bizitza ongi ezagutu zituen.



Bizenta Mogel

(1782-1854)

22 urte zituela, euskarazko lehen fabula-liburua, euskarara itzultitako Esoporen fabulak "Ipui onak" lanean argitaratu zituen.

Eugenio Aviraneta

(1792-1872)

Espioitza eta intoxikazio lanean ibili zen, karlismo barruko sektoreen artean mesfidantza erein nahian. Horretarako, zurrumurruek eta gezurrezko agiriak zabaldu zituen, ofizialen artean zatiketak eta soldaduen artean etsipena sortuz.



PARTE HARTU

galderen erantzunak
 museora bidali eta opari
 bat jasoko duzu
mzumalakarregi@gipuzkoa.net

JOKUAK

Beñat Gaztelumendi bertsolariaren ondorengo
 bertso hau deszifratu:

47#≡!04 ∴!87# ≡!0Ċ!Ċ!Ċ!
 0iĊi!Ċ40 #≡7#iĊ!≡i
 6404004≡ !0i0# T!040 ∴7#Ċ!Ċ4
 T!00#4≡ i!0Ċ6!≡i



Karlistek erabilitako klabeak

a b c d e f g h i j

4 T l ∴ ! - 8 □ ✕


k l ll m n ñ o p q r s

≡ ≠ φ ∠ 0 7 i 2 III 0 i

t u v x y z

z 7 ∴ d 7 6

Zer dira objektu hauek?




Esaten dute Tomas Zumalakarregik patata tortila asmatu zuela.
 Zuk zer uste duzu, horrela dela.....

Bai Ez

INDUSTRIA IRAULTZA

Ondorengo maparen arauera, zein sektore nabarmendu zen Gipuzkoan? Eta Bizkaian?


Industria Iraultza Euskal Euskal Autonomi Erkidegoan **XIX. mendearen bigarren erdian** hasi zen. Batez ere Gipuzkoan eta Bizkaian eman zen, eredu diferentekin bazen ere.



GARRAIO-IRAULTZA

Ondorengo garraio moduak sailkatu:

gurpilez(gurdia, dilijentzia, galera), oinez, zamariz (mandazaina) eta baporez. (belauntzia, baporeuntzi gurgilduna, b. Helizeduna, lokomotora)
Baita komunikabideak ere (trenbidea, errepidea, lehen mailako errepidea, mandabidea, bigarren mailako errepidea)



ORMAIZTEGIKO TRENZUBIA

Ormaiztegiko zubibidea, 1864ko abuztuaren 15ean inuguratua, Madril-Paris trenbideko obrarik inportanteena, **288 m luze** eta **34 m** garaiko sakana zeharkatzeko soluziobideak egiten du inportante. **1.800 tona** pisu lau pilare gainean duelarik, **Alexander** Lavalley injinariak, Gustave Eiffelen aurrekoak, zubi zabal, eroso, arin eta oso segurua eraiki zuen. Benetako maisu-lana, **burdina** erabiliz, orduan eraikuntza material berria eta iraultzailea zena, eraikitzeko aukera izugarriak eskaintzen zituen eta.

Horren frogagarri dugu zubi hau. **131 urtez** etengabe erabili ondoren eta hasieran aurrikusitako trafikoa ehundaka biderkatu zaiolarik, orduan bakarrik jarri zaio ordezkoa. Zubi zaharra erortzeko dagoenik ezin esan, ordea. Euskal Herri osoan ez dago halako obrarik, ezaugarri teknikoei edo garrantzi historikoari dagokionez, bertakoek eta kanpokoek miresten duten burdinezko arkitektura honen aldean jarri daitekeenik.

Miresgarriena ez dago begibistan, lurpean baizik. **Pilareen zimentazioak (20m)** eta indarren kalkuluak egiten dute zubi hau bere garaikoak baino askoz garrantzitsuago.



1864

Trenzubiaren inaugurazioa

Zubi hau 1864an inauguratu zenetik, Madril eta Paris trenbidez lotu eta gure historia ez da berdina izan. Balio estrategikoa ikaragarria izanik, gerrak izan ditu etsai nagusiak.


Bigarren karlistadan, 1872-1876, karlistek Beasaingo geltokia erre zuten, baina Ormaiztegiko zubia botatzen ahalegindu arren, kalte txikiak besterik ez zioten eragin.



1912


Bide bikoitza

Bide bikoitza 1912 gaineratu zen, eta 1928 elektrifikatu. Bake garaia hobekuntza zekarren




1928

Elektrifikazioa



Hormigoizko pilareen bermaketa

1941



Birrearaikuntza indartzeko, 1941 oraingo itxura ematen dioten zementozko pilareak jarri ziren.

1936

Gerra garaiko suntsiketeta



Gerra zibilean, 1936 irailaren 15 eta 16an, Bergarako labe garaietako langileek zubia sopletez moztu zuten, tropa frankisten etorrera galeraziko zutelakoan. Lan bikaina, garbia, lehergailurik gabea...bizia kosta zitzaiena, frankistak biharamunean iritsi eta zubiaren ondo ondoan dagoen kanposantuko hormaren kontra fusilatu zituzten eta.

Trenzubi berriaren inaugurazioa

Trena gabe mundua ez litzateke berdina izango, horretan ez izan dudarik.

Aurrerapenaren izenean zubia eraiki zuten, aurrerapenaren adibide onena bera izanik. Zubi berri bat eraiki zen 1995 zaharraren ondoan eta harrez gero hau ez da erabili. Oraingo zubi berria ere noizpait zaharkitu eta garai berrietara egokitzeko eskatuko du norbaitek






Iraganeko lekuko eta protagonistek zerikusi handia dute gurekin, haiek gabe ez baita gure bizimodua ulertzerik.


Mota askotako elementuek osatzen dute gure **ondare historikoa**. Batzuek informazioa ematen digute, besteek sentimendu bereziak eragiten, eta denek indartzen dute gure nortasuna.

Herri baten nortasuna, hein handi batean, giza eta natura paisaiak markatzen du. Hiri handiek **eraikin enblematikoak** izan ohi dituzte: Nwe Yorkeko Askatasun Estatuak, Parisko Eiffel Dorrea... Herri txikiak artean badago baita ere elementu bakar batek konfundi ezin egiten duena; Ormaiztegi da horietako bat. Edonondik ikusita ere, zubia da jaun ta jabe. Balio teknologikoaz gain ormaiztetarren egunerokotasunaren parte bihurtu da. Bera gabe ez dago Ormaiztegi imajinatzerik.

Ez dira metroak haundi egiten dutena, baina...



Orain munduko gauzarik naturalena iruditzen zaigu Madril-Paris bidea Gipuzkoatik pasatzea, Irun-Hendaia lehen mailako trenbide lotura izatea. Izan zitekeen bestela, ordea. Eta Aldudeko trena egin balitz? Eta Baionara Iruñetik iritsiko balitz? Auskalo, beharbada nafar Piriniotako biztanleak Goierri eta Tolosalde bukolikoetara etorriko lirateke oporretan.... Gaurtik ikusita, ezinezkoa iruditzen zaigu, baina bere garaian gogor borrokatu zuten nafarrek aukera haren alde.




Madril - Paris trenbidea Nafarroan barrena igaro izan balitz, Industri Iraultza Gipuzkoan berdin emango zatekeela uste duzu?

Eta zure herrian, nolako eragina izan edo izango du trenak?

Milaka euskaldunek lan egin zuten burdinbidearen eraikuntzan injinari frantsesen gidaritzapean; materiala eta makinaria ere Frantziatik zetozen.

PIEMONTEKO 600 lagun, Frantzia eta Italia arteko **ALPEETAN** tunelak zabaltzen espezializatuak, Beasain-Olazti tartean ibili ziren lanean. Piemontar hauexek, **ORMAIZTEGIKO ZUBIBIDEAN** jardun zuten zenbait euskaldunekin batera -Nemesio Artola tolosarra barne- konpainia frantsesarekin jarraitu zuten **SUEZEKO KANALAREN** obretan.



1864AN, **TREN BATEK** Donostiatik Ormaiztegiara
ORDUBETEAN garraiatzen zuen **1.000**
tonako zama...

1.000 tona

TREN 1

ordu 1

... lan bera egiteko **100 GURDIK EGUN OSOA** behar zuketena.

1.000 tona


100
Gurdi

egun 1


Aleluia honetan trenbideari buruzko ikuspegia adierazten da.



¡Honra y gloria al inventor de la presión del vapor!



Atronante y silbadora corre la locomotora.



Al ferro-carril ligeros se dirigen los viajeros.



Para entrar al tren, te metes al despacho de billetes.



El primer paso del viaje es pesar el equipaje.



Hay luego que presentar el billete para entrar.



Aguarda la gente ufana el toque de la campana.



Luego la campana suena y en seguida el tren se llena.



—No puedo ir en el tren yo? —Sí; pero el perrito no.



Con gran precipitación sale el tren de la estación.



Quien llega tarde al andén, solo ve marchar el tren.



El tren en pos de un viajero, solo ve marchar el perro.



En un tren que va marchando es expuesto irse asomando.



La gente más elevada va en primera acomodada.



En los coches de segunda la gente mediana abunda.



En asientos de tercera va la gente bullanguera.



Es oficina incesante la del correo ambulante.



Los perros viajan hoy día en amable algarabía.



Va de estación a estación del telégrafo la acción.



Viajar en tren de recreo es divertido paseo.



Ocupan los corpulentos casi siempre dos asientos.



Del asiento cama haciendo cada cual se va durmiendo.



En un túnel, por torpeza, uno deja la cabeza.



Un niño incauto se asoma y del coche se desploma.



Es curioso ver las casas, si encima de un pueblo pasas.



El vigilante puntual al tren hace la señal.



Pasa un túnel y se encierra un tren debajo de tierra.



Con facilidad empuja todo el tren el guarda-aguja.



Un tren con toda su gente va por encima de un puente.



Para viajar hay que hacer al vapor hasta el comer.



Haciendo aguas detenerse, es fácil sin coche verse.



El tren siempre necesita la vía bien expedita.



Llegando el agua á faltar, el tren tiene que parar.



Embiste un toro feróz a la máquina velóz.



Es porcañe de un momento cuando hay descarrilamiento.



Huye un rebaño aturdido de la máquina al silbido.



Quien está desesperado se hace morir aplastado.



Vapor por tierra y por mar todos corren á la par.



Comparacion bien discreta un tren con una carreta.



Llega el tren, y van las gentes en busca de sus parientes.



¡El tren! los viajeros llegan y los billetes entregan.



Pronto de tanto gentío cada coche está vacío.



Las gentes se hacen pelazos en parabienes y abrazos.



Tres días de empaquetado dejan á un hombre afeitado.



Omnibus á domicilio prestan al viajero auxilio.



La galera antaño hacía seis leguas en todo un día.



Hoy seis leguas, media hora anda la locomotora.



A la luna, día habrá, que en ferro-carril

Idea, testuak eta diseinu grafikoa
K6 Kultur Gestioa

Zumalakarregi Museoa:
www.zumalakarregimuseoa.net

“XIX. mendeko albuma”:
<http://www.albumsiglo19mendea.net>


ZUMALAKARREGI MUSEOA
Muxika egurastokia 6.
20216 Ormaiztegi (Gipuzkoa)
Tel.: +34 943 88 99 00 Fax.: +34 943 88 01 38
mzumalakarregi@gipuzkoa.net
www.zumalakarregimuseoa.net



KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA



© zumalakarregi museoa 2011

 material birziklatuetan inprimatua